

Ate bat ireki dugu

Ez dakit 2008ko ekainaren 27a Euskal Herriaren historian urrezko letretan idatzita geratuko den. Ez dakit egun historikoa izan zen ala ez; hori denborak esango digu baina bai izan zela egun garrantzitsua, eta ondorio positiboak ekarriko ditu, gainera. Gure herriko egoera politikoa desblokeatu nahian, bakea eta normalizazioa bilatu nahian, Eusko Legebiltzarrak herriari hitza ematea ahalbidetuko duen legea onartu zuen. Oinarrizko ariketa demokratikoa izan da eta etorkizunean beste ariketa demokratiko batzuk ere egin beharko ditugu, honako hau lehenengo urratsa baino ez baita izan.

Ez dago ezer gizarteari bere iritzia eskatu eta errespetatzeko konpromisoa hartzea baino demokratikoagoa. Zinez, alderdikeriak alde batera utzi eta gatazka politikoa behingoz konpondu nahi dugunok aukera paregabea dugu. Konponbidearen oinarriak – indarkeriaren desagertzea eta erabakitze eskubidea – ipini ditugu mahai gainean, eztabaida politikoaren erdi-erdian.

Kontsultaren inguruko iskanbila mediatikoak eta ika-mika politikoak, hala ere, PSOEren eta PPren beldurra agerian utzi dute. Galdeketaren muinera joan ordez, euren Konstituzioa hartu eta legezketasunaz hitz egiten digute, baina mamiari dagokionean ez dute inolako argudiorik ematen. Euskal herritarrek hitza hartzeko zilegitasun osoa dute, arazoa PSOEren eta PPren borondate politiko falta da. Beldur diote euskal gizartearen erantzunari, beldur diote demokraziari.

Ezker Abertzalea ere beldurrez jokutzen ari da. Beldur dio benetako konpromisoak hartzeari. Besteen ustezko kontraesanak bilatzea ez da modurik eraginkorrena guztiok egin beharreko bidean aurrera egiteko. Aurkako jarrera ez eraikitzaile hutsak behingoz baztertu eta konpromiso serioak hartzeko ordua heldu zaio. Ezker Abertzaleak erabaki behar du, edo kritika hutsean geratu, hasitako prozesuari kanpotik begiratzuz, edo Euskal Herri independentea eraiki nahi dugunok bidea egin, herri galdeketa jasotako bi printzipioak oinarritzat hartuta.

Ate bat ireki dugu, lehena, eta etorkizunean beste ate batzuk ere ireki beharko ditugu. Batzuek zerraila bortxatu omen dugula argudiatuz, Auzitegi Konstituzionala harresi gisa erabili nahi dute, baina herri borondatea geldiaraz dezakeen harresirik ez dago. Mehatxuek eta gehiengo arrotzak herri ahotsa ixilarazteko inposatu nahiak ezingo dute euskal gizartearen bake nahia geldiarazi. Atea ireki dugu eta bidean hasteko prest gaude. Eusko Alkartasunako gizon-emakumeok bide horretan aurkituko gaituzte, bidelagun, bakarrik gure eskubide nazionalen aldeko gehiengo demokratiko zabala egituratzeak ekarriko duelako gatazka politikoaren konponbidea.

Onintza Lasa

Eusko Alkartasunako legebiltzarkidea

2008ko uztaila